

LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO BULEGOEN HITZARMEN KOLEKTIBOA ARABAKO LURRALDERA HEDATZEARI BURUZKOA

Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak, 2008ko abenduaren 19an, Lan Harremanen Kontseilu honetara jo zuen, derrigorrezko txostena eman zezan eskatuz, Gipuzkoako lurralde historikoko bulegoen hitzarmen kolektiboa Arabako lurraldera hedatzeari buruz UGT sindikatuak egindako eskaera zela eta.

Eskaera hori, hitzarmen kolektiboak hedatzeko prozedura onartzen duen 718/2005 Errege Dekretuak 7. artikuluan ezarritakoaren babesean egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Lan Harremanen Kontseilua, Hitzarmen Kolektiboen Kontsulta Batzorde Nazionalaren antzeko kontsulta organoa dela iritzita.

Lan Harremanen Kontseiluaren Txosten Batzordeak hiru bilera egin ditu gai hau aztertzeko. Bilkura horiek 2009ko urtarrilaren 14an eta 27an, eta otsailaren 17an izan dira.

Gogoetak

Aldeen jarrerak

Confebaskek izendatutako kideak, ordezkatzeko duen erakundearen jarrera berretsi zuen, espediente administratiboari erantsitako alegazioen idatzian adierazitako terminoetan. Langileen Estatutuak 92.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta berau garatzeko oinarritzko arauak, 718/2005 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz, hedadura ez da negoziazio kolektibo batean sortutako arazoak gainditzeko edo konpontzeko tresna bat, salbuespentzat eta hitzarmena inolaz ere ordeztu gabe erabili eta interpretatu behar den bitartekoa baizik. Horrela bada, zilegitasuna duen alderdirik ez dagoenean eta, hortaz, negoziazioa erabat ezinezkoa denean bakarrik izango da bidezkoa, eta ez negoziazioa soil-soilik korapilatsua edo zaila denean. Ildo honetan, Confebaskeko ordezkariak agerian utzi nahi du, Arabako lurralde historikoan -hitzarmena hedatzeko eskaeraren helburu den lurraldean, alegia- badagoela oraingoz behintzat hitzarmen hau negoziatzeko zilegitasuna duen sektore-artekeo enpresaburuen elkarte bat, nahiz eta, hitzarmen hau Arabako lurralde historikoan aplikatzen diren beste lurralde esparru bateko hitzarmenekin batera gertatzean sortutako arazoak konpondu behar direnean, esparru funtzionala mugatu egin beharko litzatekeen. Gai hori, dena den, negoziazioa prozesuan sartzen da eta, beraz, prozesu horretan aztertu beharko litzateke, aurretiazko alderdi gisa. Ondorio gisa, aipatutako ordezkariak berretsi du kasu honetan ez direla betetzen Gipuzkoako hitzarmena Arabako lurralde historikora hedatzeko bete beharreko baldintzak.

UGT sindikatuak izendatutako kideak berretsi zuen, aldiz, bidezkoa dela hitzarmena hedatzeko erabakia hartzea. Ildo honetan, garbi utzi nahi du, ordezkatzeko duen antolakuntzak egindako hedatze-eskaera ez dagoela hitzarmenaren benetako negoziatioari ekiteko zailtasunetan oinarritua, ez eta enpresaburuen negoziatzeko borondate-ezean oinarritua ere, nahiz eta, hasierako hedatze-eskaeran, bazterretik bada ere egoera hori aipatu zen. Enpresaburuen aldetik ez dago zilegitasunik hitzarmena negoziatzeko, hori da benetako arrazoia. Confebaskek izendatutako kideak hitzez bestelakorik adierazi badu ere, SEA sindikatuaren zilegitasuna ez dago egiaztatua; eta hedatzeko prozeduraren barruan ez da martxan jarri zilegitasun hori benetan egiaztatzeko jarduketara bat bera ere. Beraz, hitzez egindako adierazpena ez da nahikoa, baldin eta adierazpen horrekin batera, negoziatio prozesuari ekiteko benetako konpromisoa hartzen ez bada. Horrelako konpromisorik ez dagoenez, nahikoa da aurrekariak eta orain arte negoziatio mahaia eratzeke ezintasuna erakusten duten zantzuak begiratzea, hemen adierazi nahi den zilegitasun hori ez dela benetakoa ondorioztatzeko.

CCOO sindikatuak izendatutako kideak adierazi duenez, hitzarmena hedatzeko eskaerak, oro har, ez dituzte negoziatio prozesuak ordeztu behar. Hedadura, beraz, salbuespenezko prozedura gisa erabili behar da. Ildo honetan garbi utzi nahi du, ordeztu duen erakundea, era honetako eskaerak eta espedienteak oro har erabiltzearen aurkakoa dela; izan ere, erakunde honen iritziz, hitzarmeneko ordezkarietara dagokie, beren autonomia erabiliz, negoziatio prozesuetan protagonismo zuzena beren gain hartzeko ardura. Eskaera jakin honi dagokionez, kide honen iritziz, Confebaskek izendatutako kidearen adierazpenek negoziatio mahaia eratzea ekarri beharko lukete, baldin eta enpresaburuen aldean zilegitasuna duen subjektu kolektibo bat benetan badago, hemen baieztatu den bezala. Alabaina, eskaera jakin honi lotutako aurrekariak aintzat hartuta, negoziatioak zentzuzko epe batean hasteko konpromiso zehatza onartuta bakarrik justifika daiteke hitzarmena hedatzeko eskaeraren aurkako iritzia. Konpromiso hori ez bada hartzen, edota negoziatio prozesua ez bada zentzuzko epe batean abiarazten, sindikatu honetako kidearen iritziz kasu honetan eskaera onartu egin beharko litzateke, salbuespena eginez, eta betiere, hitzarmena hedatzeko bitarteko hau oro har erabiltzearen aurka egotearen iritzia baldintzatu gabe.

LABek izendatutako kideak ez du beharrezkotzat jotzen, ordeztu duen antolakuntzak hitzarmena hedatzeko sistemari buruz duen jarrera azaltzeko adierazpen orokorra egitea. Eskaera jakin honi dagokionez, abstentzioaren alde dago. Hala ere, kide honen iritziz, kasu honetan irtenbiderik egokiena ez litzateke Gipuzkoako hitzarmena Arabako lurralde historikora hedatzea, baizik eta sektore honetan ordezkarietara duten sindikatuek, Arabako bulegoen hitzarmenaren negoziatioa bultzatzea, bere

burua zilegitzat jotzen duen enpresaburuaren antolakuntzaren aurrean.

Lan Harremanen Kontseiluaren Txosten Batzordearen erabakiak

Batzordekideen jarrerak adierazitako moduan finkatzeak arazo formal bat jarri zuen aztergai, UGT sindikatuak izendatutako kideak espresuki adierazi zuena, hain zuzen. Zehazki, ordezkari honen iritziz, hedadura bidezkoa den ala ez erabakitzeak adostasunik ezin dela lortu ikusita, Kontseiluak soil-soilik erantzun beharko luke txosten hori ezin dela eman. Dioenez, Kontseiluari era honetako espedienteetan dagokion esku-hartzea ez da kontsulta-zeregin orokor bat; eta, dagokion eginkizuna, Kontseiluari berari egotzi dakioken kide guztien iritzia adierazten duen adostasun bat lortuta bakarrik bete daiteke eraginkortasunez. Hau da, iritzi hori ezin da ordeztu, inolaz ere, Kontseiluko kideen iritzi partikularrak aipatuz.

Gai hau gainerako batzordekideen irizpenera jarri ondoren ikusi da, ez daudela ados Kontseilua txosten bat emateko ezintasuna adieraztera mugatzearekin. Ildo honetan, Confebaskeko kideak, Kontseiluaren beraren aurrekariak ekarri ditu gogora, 2007. urtean aurretiazko txostena eman baitzuen eduki berdintsuko hedatze-eskaera bat zela eta. Kasu hartan, adostasunik lortu ezenez, Batzordeko kideen iritzi espezifikoa jaso zen txostenean. Era berean gogorazi du, kontsulta-zereginari buruz desadostasunak badaude ere, horixe dela, bere garaian Osoko Bilkura batean erabakitakoaren arabera, Kontseiluak oro har erakutsi beharreko jarduteko era. Eta, kasu zehatzetarako beste jarduketa mota berezi bat erabaki ezean, horixe dela erabili beharreko bidea.

Gainerako batzordekideek ere iritzi bera erakutsi dute; hau da, hedadura-eskaerei erantzuteko bestelako erabakirik ez badago, edota kasu jakin honetarako bestelakorik erabaki ez bada, kontsulta-zeregina gauzatzeko oro har erabiltzen den irizpidea erabili beharko litzatekeela.

Aldeek iritzi desberdinak zituztela ikusirik, Kontseiluko lehendakariak erabaki zuen Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari kontsulta-zereginak burutzerakoan oro har erabiltzen diren terminoetan erantzutea; hau da, adostasunik ez dagoela agerian utziz eta, funtsean, batzordeko kide bakoitzaren iritzi partikularrak adieraziz.

Alabaina, kontuan hartuta jarduketa hau ohiko kontsulta-jarduketaz bestelakoa dela, presidenteak adierazi zuen alde guztiek alegazioak egin zitzaizketela idatziz, bai Kontseiluak jarraitu beharreko prozedurari buruz, baita hitzarmena hedatzeko eskaeraren bidezkotasunari edo bidezkotasun-ezari buruz ere. Eta, alegaziorik aurkeztuz gero, Laneko Zuzendaritzari bidali beharreko txostenari erantsiko zitzaizkiola, hitzez hitz transkribaturik.

Presidenteak iragarri zuen, halaber, txosten hori 10 eguneko epea bete ondoren bidaliko zela, baldin eta Kontseiluan aurrez

komunikazioren bat jasotzen ez bazen behintzat, Arabako bulegoen hitzarmena negoziatzeko mahaia eratu dela esanez, edota negoziazio prozesuari benetan ekin zaiola adieraziz.

Batzordekideen alegazio partikularrak

Txosten Batzordeak azkeneko bilera egin eta gero, UGT sindikatuak eta Confedebaskek izendatutako kideen alegazioak jaso ditugu, segidan transkribatuko ditugunak, hain zuzen. Gainerako batzordekideek jakinarazi dute adierazitzat eman dituztela txosten honetako beste atal batean azaldutako gogoetak.

Euskadiko UGT sindikatuaren ekarpenak, bulegoen hitzarmena hedatzeko eskaera dela eta, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailari bidali beharreko dokumentuari.

LEHENDABIZIKOA.- Hasteko, UGT sindikatuak Lan Harremanen Kontseiluan duen ordezkariak erabateko desadostasuna adierazi nahi du Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak eskatutako txostena dela eta, Kontseiluak egin duen kudeaketarekin. Izan ere, honek ez du inolako jarduketarik burutu, Langileen Estatutuko 92.2 artikuluan (718/2005 Errege Dekretuko 7. art.) ezarritako zirkunstantziak gertatzen diren ala ez egiaztatzeko.

Horrez gain, ordezkariak hau ez dator bat Kontseiluko lehendakariak hartutako erabakiarekin, hau da, txosten arrunten eskaeren kasuan egiten den moduan, txostena eman ordezkarien iritziaz bildu izanarekin.

Alde handia dago Eusko Jaurlaritzak lan arloko arau bat eman aurretik egin beharreko txostenaren eta hitzarmena hedatzeko txostenaren artean. Lehenengo kasuan, legeak Kontseiluari esleitu dion izaera politikoko kontsulta-zeregina gauzatzea da; eta, eskaera horri ez bazaio erantzuten ere, horrek ez du arauaren promulgazioa baliogabetzen. Baina aztergai dugun kasu honetan, hitzarmena hedatzea alegia, txostenak eginkizun juridikoa du, eta txosten hori erabakigarria da, gainera, espediente administratiboari dagokionez. Derrigorrezko txosten horren ordezkariaren bilduma bat ematea, txostena ez egitea bezalaxe da. Izan ere, txostenak eduki bakarra izan lezake: hitzarmena hedatzeko beharrezkoak diren zirkunstantziak ematearen ala ez ematearen gaineko irizpena. Kasu honetan, txostenik eman ez denez, prozeduraren izapideek ezin dute aurrera egin, non eta Eusko Jaurlaritzak derrigorrezko txosten hori Hitzarmen Kolektiboen Kontsulta Batzorde Nazionalari eskatzen ez dion, denok lotsaraziz.

Inguruabar hauei eusten bazaie, hitzarmen kolektibo bat hedatzeko eskatzen den bakoitzean, hitzarmen kolektiboari buruzko irizpena emango duen erkidego mailako kontsulta batzorde bat eratu beharko da Euskadin, Lan Harremanen Kontseiluaz aparte; eta batzorde hori egoki osatu beharko da, oraingo honetan gertatu dena berriro gerta ez dadin.

BIGARRENA.- Kontseiluko lehendakariak txostena eman ordezkari partikularren berri ematea erabaki duenez, bere iritzia ematera behartua dago UGT, espediente honen izapideen ondorioz zer gerta ere.

Ildo horretan, hitzarmena hedatzea bidezkoa dela berresten dugu; izan ere, eskaeran azaldutakoari jarraituz, kasu honetan betetzen

baitira legeak aurreikusitako inguruabarrak. Bereziki nabarmendu nahi dugu Araban ez dagoela bulegoen sektorean negoziatzeko zilegitasuna duen enpresari elkarterik.

Hitzarmena hedatzeko eskaera honek, lehen ere helburu berarekin egindako eskaera berresten du. Orduko eskaera hartan azaldu genuen UGT sindikatua SEA enpresaburuen sindikatuari zuzentzen zitzaiola, Araban negoziazio mahaia eratzeke moduko enpresari konfederazio bakarra zela iritzita. Horrek ez du esan nahi, dena den, negoziazio horretarako zilegitasuna aitortzen zitzaionik, sindikatu bat ez baita inor baieztapen hori egiteko. Enpresaburuen elkarteari dagokio zilegitasun hori frogatzea; eta kasu hartan, behar hainbateko ordezkartzarik ez zuela adierazi zuen.

Aipagai dugun kasu honetan, SEAk ez die inolako erantzunik eman negoziazio horretarako egin zaizkion eskaerei; eta isiltasun horrekin, eremu horretarako negoziazioan sartzea baztertu duela erakutsi du. Egia da, eskaera hartan, SEA sindikatuak negoziatzeko borondaterik ez duela adierazi genuela; baina egia da, halaber, hori ez dela hitzarmena hedatzeko eskaeraren funtsa. Zilegitasunik ez badu, beste hainbatetan esan duen bezala, ezin du eta ez luke negoziazio horretara aurreratu behar; eta hain zuzen ere, zilegitasun-ez horrek justifikatzen du eskaera.

Confebaskek azken momentuan eta “hitzez” zilegitasuna baduela adierazteak ez du eraginik zilegitasuna duen subjekturik badagoen ala ez jakiteko. Horretarako, SEAren idatzi bat beharko zen, zilegitasun hori baduela egiaztatzen duten frogabideekin batera aurkeztutako idatzia. Egiaztatu egin behar du, ordezkartza ez baita aurrez halakotzat jotzen den gauza; gainera, kasu honetan, egindako eskaeren aurrean gorde duen isiltasunak, ordezkartza hori ez duela berresten du.

Hori guztia dela eta, UGT sindikatuak berresten du kasu honetan betetzen direla hitzarmena hedatzeko gertatu behar diren inguruabar guztiak; eta, era berean, hedatze hori egiteko eskaera berresten du.

Confebasken jarrera Gipuzkoako bulegoen hitzarmena Arabara hedatzeko espedientearen, 718/2005 Errege Dekretuaren arabera Lan Harremanen Kontseiluak prozedura horretan eman beharreko txostena dela eta.

Langileen Estatutuaren 92.2 artikuluari lotuta, 2005eko ekainaren 20ko 718/2005 Errege Dekretuko 1.2 artikulua aurreikusitakoaren arabera, hitzarmena hedatzeko prozedura erabili daiteke, kasuan kasuko alorrean hitzarmena adosteko “zilegitasuna duen alderdirik” ez dagoenean.

Arabako bulegoen alorrari dagokionez, Confebaskek ukatu egiten du zilegitasuna duen alderdirik ez izatearen baldintza hori betetzen dela. Izan ere, SEA sindikatuak zilegitasun hori baduela dio, nahiz eta gero, alor berean hitzarmen bat baino gehiago suerta ez dadin, kasuan kasuko alorraren esparrua xehetasunez zehaztu beharko den, beste edozein negoziazio prozesutan gertatzen den bezalaxe.

Fede onez negoziatzeko obligazioa lege bultzatzen duen zilegitasun hori badagoenez, ez du zentzurik hitzarmena hedatzeko eskatu den prozedurari ekiteak, ez baita betetzen prozedura horri ekin ahal izateko baldintza: negoziazioa ezinezkoa izatea, zilegitasuna duen alderdirik ez dagoelako. Azken batean, Confebasken iritziz, kasu honetan ez dira betetzen hitzarmena hedatzeko eskatu den bitartekoa erabiltzeko legezko betekizunak.

Ondorioa

Ikusirik Lan Harremanen Kontseilua arautzen duen legearen arabera, erabakiak hartzeko bi aldeen gehiengoa behar dela, eta kontuan hartuta Txosten Batzordeko kideen artean azaldu diren eta txosten honetan jaso diren desadostasunak, Gipuzkoako bulegoen hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde historikora hedatzeko legez ezarrita dauden betekizunak betetzen diren ala ez erabakitzeari dagokionez, Txosten Batzordearen bileraren amaieran ez zen izan Lan Harremanen Kontseiluak emandakotzat jo daitekeen irizpen bateraturik, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak eskatutako txostena dela eta.

Bilbo, 2009ko otsailaren 27a